

2019ko EKAINA

185

# txi kitto!



**Ondo pasa  
jaietan!!!**



### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartea.  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa

Maider Aranberri eta  
Ekhi Belar.

### Maketazioa

Ana Aizpurua.

### Azaleko argazkia

Silbia Hernandez.

### Banaketa arduraduna

Ainhoa Luz.

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia



Mutiko batek  
beste bati  
esaten dio

- Zer gertatzen da  
belarri bat kentzen  
badizut?

- Erdi gorra

geratuko naizela.

- Eta bestea kentzen badizut?

- Itsua geratuko naizela

- Eta hori?

- Betaurrekoak jautziko zaizkidalako.



Zer esaten dio ipur masail  
batek besteari?

- Ez pasatu marratik.



Zer esaten dio harri  
batek besteari?

- Bizitza oso gogorra da.



Gizon bat  
animalien  
dendan:

- 100 txita  
erostea nahi  
ditut

Handik egun batzuetara  
bueltatzen da:

- Beste 100 txita erosi nahiko  
nituzke.

Hurrengo egunean berriro  
bueltatzen da:

- Beste 100 txita, mesedez.

- Baina zertarako behar dituzu  
hainbeste txita?

- Ba ez dakit gaizki landatzen  
ditudan edo gutxi ureztatzen  
ditudan edo zer, baina denak  
hiltzen zaizkit!



Zer da kapadun  
tomate bat?  
Supertomate bat.

Eta kapadun platanoa?  
Platano bat  
supertomatez  
mozorrotuta.

- Noizbait ikusi al duzu elefante bat zuhaitz baten atzean ezkutatua?
- Ez
- Oso ondo ezkututzen delako.



- Zer esaten dio mahats berde batek mahats more bati?
- Arnasa hartu!



- Erraldoi batek jogurta jaten duenean urdailera iritsi orduko kadukatuta dago.



- Zein da panda baten kolmoa?
- Argazki batean txuri beltzez agertzea.




- Inor eta tonto kaletik doaz eta Inor estolda batera erortzen da. Orduan tonto poliziarengana doa eta esaten die:

- Inor estolda batean erori da!
- Baina, zer esaten duzu, tontoa al zara?
- Bai!



# Denborapasak



1- Zuri-zuria naiz,  
beti hegaka nago,  
ehiztariak etortzean  
beti presaka.

Nor naiz???? Erantzuna:

2- Niri emandako  
ostikoei esker  
jokaldi ederrak  
jokatu dira.

Nor naiz???? Erantzuna:


3- Ez da pertsona  
ezta animalia bat  
hankak ditu  
baino ez da mugitzen.

Nor naiz???? Erantzuna:

Miriam Murte

5	3			7			
6			1	7	5		
	9	8				6	
8				6			3
4			8		3		1
7				2			6
	6					2	8
			4	1	9		5
				8		7	9

Arene 6.A



Z	M	A	R	R	U	B	I	A	O	S	T	P
R	P	F	X	P	E	S	O	S	A	B	L	A
T	J	U	S	A	N	D	I	A	B	A	M	R
A	N	A	N	A	L	I	R	Z	I	M	U	X
N	O	D	H	H	K	R	P	A	L	E	H	E
I	B	I	Z	L	A	I	N	R	G	N	K	P
R	N	U	B	G	S	O	J	N	A	R	A	L
A	L	N	A	O	A	U	L	R	D	P	D	I
D	M	S	L	P	Z	F	R	G	R	K	J	M
N	H	T	G	E	R	E	Z	I	A	U	N	O
A	O	E	L	S	M	E	L	O	I	A	L	I
M	A	U	I	Z	E	T	H	X	B	N	M	A


FRUTAK

- Sagara
- Melaia
- Sandia
- Mandarina
- Marauliat
- Platanea
- Laranja
- Anana
- Genesial
- Limonia

Malen 6.A



Laberintoa




Jokin 6.A



# Lehiaketa

## 7 desberdintasunak



Bidali erantzunak ekainaren 28a baino lehen  
...eta kitto! Euskara Elkarteak- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel. ....



**Iraitz Hernandez**

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea Iraitz Hernandez izan da. Ipuina eta ...eta kitto!ko kamiseta eraman ditu etxera Iraitzek. Zorionak!!!

# Ana Ramos

## ETB-ko kirol esataria



Aurpegi ezaguna egingo zaizue. Ana Ramos eibartarrak kirol-albisteak ematen ditu Euskal Telebistan. Ez da Eibarren bizi baina sarri etortzen da familia eta lagunak bisitatzera. Hona hemen berarekin izandako solasalditxo.



### - Telebistako saio bat?

Gaur Egun Kirolak.

### - Oroitzen duzun umetako pelikula bat? E.T.

### - Zein marrazki-bizidun gustatzen zitzazun?

Heidi eta Dotakon.

### - Eta gaur egun?

Ez ditut ikusten. Pelikulen artean Ice Age, Madagascar...

### - Nor eramango zenuke irla batera? Jon, senarra.

### - Eta nor ez?

Egoera berrietara moldatzen ez den inor.

### - Eta zer 3 gauza?

Txiskeroa, labana eta manta haundi bat.

### - Umetako amets bat?

Hegan egitea.

### - Eta orain duzuna?

Hegan egitea.

### - Gehien gustatzen zaizun jakia?

Patata-tortila.

### - Eta gutxien? Bruselazak.

### - Espagetiak tomatearekin ala gabe? Gabe.

**Izena:** Ana

**Abizena:** Ramos

**Jaioterria:** Eibar

**Jaiotze-data:** 1973/2/2



### - Sekula jantziko ez zenuken arropa?

Plataforma haundidun botak.

### - Eta zure armairuan falta ez dena?

Praka bakeroak.

### - Kazetaria ez bazina zer izango zinateke?

Komunikazioarekin lotutako zeozer seguru.

### - Birziklatzen duzu? Bai.

### - Zein albiste ematea gustatuko

### litzaizuke?

Urtero urtero Eibarrek lehen mailan jarraitzen duela.

### - Euskara osasuntsu dago?

Nahi baino gutxiago baina orain dela urte batzuk baino gehiago.

### - Zer egin gehiago erabiltzeko?

Azken urteotan egiten ari diren kanpainekin jarraitu, eraginkorrak dira-eta.

### - Ametsetako oporrak non?

Ezagutzen ez dudan leku batean, Zelanda Berrian adibidez.

### - Nolakoa da zure egun perfektua?

Oso normala. Ondo gosalduta, kirol pixkat egin, otordu gozoa egin, pelikula edo serie bat ikusi eta kalera irten bikotearekin edo lagunekin.

### - Abesti bat? Zea Mays-en Ihes.

### - Itsasoa ala mendia? Itsasoa.

### - Gazia ala gozoa? Gazia zalantzarik gabe.

### - Zerk pozten zaitu? Besteen alaitasunak.



# San Juanak 2019



## Ekainak 23, domeka

**10:30:** Santuari zapia jarri Ospitalean.

**12:00:** Untzagan, koadrilak bildu, Ustekabe fanfarrearekin Kalejira Untzagaraino.

**13:00:** Estaziño kalean, ongietorria Lizarrako Dultzaineroei, eta kalejira Untzagaraino.

**13:30:** Udaletxetik pregoia eta jaiei hasiera emateko txupinazoa.

**13:45:** Udaletxean, sanjuanetako kartel-lehiaketaren eta pegatina-lehiaketaren sari-banaketa.

**17:00-21:00:** Klarionez tailerra: Sanjuanetako munduko kartel haundiena, Lekim Animazioen eskutik. Untzagan.

**17:30:** Koadrilak bildu eta kalejira fanfarrearekin zezen plazaraino. Untzagan.

**18:00:** Koadrilen arteko jokoak. Zezen Plazan.

**19:00:** Urkizutik, Lizarrako erraldoi eta buruhandien kalejira Lizarrako Dultzaineroekin.

**19:00:** Untzagatik, Irulitxa fanfarrearekin kalejira.

**20:00:** Anbulatoriotik irtenda eta erdiko kaleetan zehar, "Ulterior el viaje" zirko ikuskizuna, Tiritantes Circo Teatroyen eskutik.

**23:00-04:00:** Berbena Lisker taldearekin Untzagan.

**23:15:** Dantza Garaikidea taldearen dantza-ikuskizuna eta San Juan Sua. Untzagan.

**00:00:** San Juan Kantua eta jarraian Danborradaren Alardea, Eibarko Cielito Musika Bandak langunduta. Untzagan.





## Ekainak 24, astelehena

**11:00-14:00 eta 18:00-20:00:** Kolore Monstruoak jolas parkea. Tomb Creatius antzerki taldearen eskutik. Untzaga plazan.

**17:00:** Astelena frontoian, pilota jaialdia.

**18:00:** Untzagan, "San Juan city secrets". Herrian zehar egingo den makro-ginkana joko koadrilentzat.

**19:00:** Turisteando kale antzerkia, Trapu Zaharra konpaniarekin. Calbeton kalean, San Andres eliza inguruan..

**19:00:** Umeen danborrada.

**19:30:** Amorebieta-Etxanoko Nazioarteko kale musikarien lehiaketaren taldea.

**20:30:** Untzagan, umeen pregoia eta Alardea.

**22:00:** Erromerixa Untzagan. Untzaga plazan.

**23:30:** Soka Dantza Untzagan.

**00:00:** Suzko erroberak.

**00:15-03:00:** Untzagan, berbena Jamaica Show-ren eskutik.



## Ekainak 25, asteartea

**17:30/20:30:** Umeentzako puzgarriak. Urkizun.

**18:00:** Urkizutik, Bilboko Ondalan konpartsarekin erraldoi eta buruhandien kalejira.

**18:00:** Untzagan, Euskal Jaialdia.

**18:00:** Untzogatik, kalejira Africa Baj Yay taldearekin.

**19:00:** "Al otro lado" kale antzerkia, Zanguango Teatro taldearen eskutik. Toribio Etxebarria kalean.

**20:00:** Kubako Anacaona orkestraren kontzertua. Untzaga Plazan.

**23:00:** Suzko erroberak.

## Ekainak 27, osteguna

**16:30:** Karmen kaleko parkean, umeentzako txokolate-jana.

**17:00:** Karmen kaleko parkean, umeentzako jokoak.

**19:00:** Karmen kaleko parkean, Gorriti eta bere abereak.







## LA SALLE

Maiatzaren 14an 300. urteurrena ospatzeko koreografia bat egin genuen Untzagan La Salle Isasi eta Azitaingo ikasle eta irakasle guztiek, mundiala izan zen!

Maiatzaren 13tik 17ra Agenda 21 astea ospatu genuen. Txangoak ere egin ditugu eguraldi bikaina aprobetxatuz eta 4 eta 5 urtekoak Debara joan ziren trenez maiatzaren 21ean eta 3 urtekoak San Pedrorra.

Ekainaren 1ean txangoa izan genuen familiekin San Asensiora eta han ere ederki pasatu genuen eguna!

5. mailakoak berriz, Gamarrara joan ziren ekaina hasieran igerilekuan gozatzera. Ikasturteari amaiera emateko kurtso bukaerako jaialdia ospatuko dugu ekainaren 18an eta arratsaldean agurra egingo diegu 6. mailakoei, badoaz eta!!!

Ondo pasa oporrak eta buelta arte!!!



## ARRATEKO ANDRA MARI

LH-ko 1. eta 2. mailakoak maiatzaren 7an Eskolarteko antzerki erakusketara joan ziren "Kontukantari 2, mendian ibiltari" antzezlan ikustera. LH-ko 3. mailakoak, maiatzaren 9an, Eibarko eraikinak ezagutzera joan ziren, lantzen ari diren proiektua aurrera eramateko.

LH-ko 5. mailakoek, maiatzaren 16an "Baserrixa hurretik abelazkuntza" proiektuan parte hartu zuten Sumendixa baserrian eta 6. mailakoek, maiatzaren 22an "Baserrixa hurretik barazkigintza" proiektuan Mendigoitxi baserrian hain zuzen ere. LH-ko 3. eta 4. mailako ikasleek, maiatzaren 20an, Jabier Muguruza idazlearekin solasalditxo bat izan zuten eskolan bertan. Maiatzaren 30ean Agenda 21eko Patrulla berdeko kideak Udal batzarra izan zuten, gure eskolako proposamenak ezagutzera eman ahal izateko.

LH-ko 5. eta 6. mailakoek, maiatzaren 23an, bertso jaialdian parte hartu zuten Coliseoan. Hauek bai hauek bertsolariak!!!

Urtero bezala, buru belarri gabiltza lanean, kurtso amaierako jaialdia eta azken eguna prestatzen.



## ALDATZE

Aldatzeko 6. mailako ikasleek ekainaren 3an bi antzezlan antzestu zituzten Eibarko Unibertsitate Laboralean ikasle eta gurasoen aurrean. Lehenengo antzezlan ingelesez izan zen "Eureka" izenburuduna eta bigarrena, euskaraz, "Amona Benidormera doa!". Primerako lana burutu zuten. Zorionak denei!





## URKIZU

Ikasturtearen azken txanpa honetan, Urkizu ikastetxeko 6. mailakoak oso lanpetauta ibili dira: Gureak-era bisita egin zuten “Ni zu bezala” programarekin. Suhiltzaileak bisitatzera joan ziren eta Otxandion “orienting” egitera ere animatu ziren. Primeran ibili ziren.

5. mailakoek, urtero bezala, Sosola baserrira txangoa egin zuten: ogia eta gazta egiten ikasi zuten. Bai goxoa!

1. ziklokoek Oñatiko Natur Eskola ezagutzeko aukera izan zuten eta 2. mailakoak horrez gain, Piraten Etxera ere joan ziren gaua pasatzera. Ederki ibili dira denak.

3. eta 4. mailakoek aldiz, artzaigintza ikasi eta ezin hobeto ibili ziren Gomiztegi Baserrian. Bukatzeko, Haur Hezkuntzako txikiek Donostiko Ekogunera irteera egin zuten eta bero handia egin bazien ere, oso ondo pasatu eta asko ikasi zuten.



## ITURBURU

Bero, bero eta bero... bufa! Eguzkiak bete-betean jo digu aurtengo olinpiadetan, baina hala eta guztiz ere, egun zoragarria pasa genuen ikasle, irakasle eta gurasoek. Kirol desberdin pila bat egin genituen, aurpegia margotu genuen, batzuk ilea ere bai, mangerarekin blai busti ginen... eta hori guztia Euskararen Olinpiadak ospatzeko! Euskaraz bizi nahi eta behar dugulako, gora gure euskera! Eta zuek danok ondo pasa oporretan!



## SAN ANDRES

Maiatzaren 27an, San Andres ikastetxeko 4. mailakoak Getxoko “Kitchen Academy” sukaleskolan egon ziren. Kurtso bukaerako irteera aprobeztatu dute, gelan lantzen ari diren proiektua gehiago sakontzeko. Bertan, elikadura osasungarriaren inguruko hitzalditxo bat entzun ondoren, sukaldeetan menu goxo-goxo bat prestatu zuten: Sagar muffins-ak eta tailarinak.

Eguna primeran bukatzeko Bizkaiko Zubian joan-etorria egin zuten.



## AMAÑA

Asteburu paregabea izan zuten Amañako ikasleek. Barixakuan, hilaren 7an, hasi ziren ospakizunak eskolako ikasturte amaierako jaialdian. Unibertsitateko antzokian, HHko eta LHko ikasleek emanaldia eskaini zuten. Bertan, dantzak, abestiak eta bertsoak ikusteko aukera izan genuen. Hurrengo egunean, zapatua, Eskolako festa ospatu zen eskolan bertan. Tailerrak, jolasak eta puzgarriez gain, gurasoek herri-bazkari dotorea prestatu zuten. Asteburua biribiltzeko, domekan Amañako krossa ospatu zen, ikasle askoren parte-hartzearekin. Asteburu ederra pasatu genuen!



Iturburuko 5. mailako ikasleek natura aztertzen jardun dute azkeneko hiru hilabeteetan. Animaliak eta landareak aztertu dituzte eta lan asko egin dute: poemak, lan monografikoak, hostoak aztertzeko irteerak... Naturan adituak bihurtu arte ia-ia!

## Zer egin eta ikasi duzue naturaren inguruan?



**Patxi Basaras**  
10 urte

Mundu osoko landareak eta animaliak ezagutu ditugu eta oso interesgarria izan da. Lan monografikorako ipurtargia eta pinua aukeratu ditut. Gauza berri asko ikasi ditut, adibidez ipurtargi arrek dutela hegoak eta emeek ez. Eta arrek begi handiak dituztela eta emeek, berriz, txikiak. Gehien gustatu zaidana izan da lan monografikoa egiteko ordenagailu handiak erabiltzen utzi digutela, eta gutxien, lanerako informazioa bilatzea.



**Aimar Makazaga**  
10 urte

Gauza asko ikasi ditugu, erleen mundua, adibidez, asko gustatu zait. Gaztelanian poema ere egin dugu. Nik petaloa eta txakurra aukeratu nituen, eta lan monografikorako jirafa eta kaktusa. Jirafari buruz ikasi dudana gauzarik bitxiena da 12 metro luze izan daitezkeela, eta kaktusei buruz, oso leku lehorretan bizi direla baina barruan gordetzen dutela ura. Eta denbora asko egon daitezke urik gabe.



**Mara Leturiondo**  
11 urte

Asko ikasi dugu, landare eta animalien sailkapena, ugalketa, motak... Oso polita izan da. Iturburu mendian dagoenez, oso erraza izan da ikastolatik irten eta landareak bertan ikustea. Plastikari ere trikimailu batzuk erakutsi dizkigute animaliak eta landareak margotzeko. Lan monografikorako tigre eta landare haragijalea aukeratu nituen. Ze bitxiak landare horiek! Baina benetan ez dute haragirik jaten e?



**Elene Arrazola**  
11 urte

Lan monografikorako saguzarra eta pinua aukeratu nituen. Saguzarra animalia berezia iruditzen zait, hegan egiten duen ugaztun bakarra da. Gauzarak moduan ere ezagutzen dira. Poemarako marigorringoa eta natura aukeratu ditut. Gehien gustatu zaidana saguzarren inguruko informazioa bilatzea izan da, eta gutxien poema egitea, errimak aurkitzea apur bat zaila egin zait.



**Garazi Azpilikueta**  
10 urte



Lan monografikorako elefantea eta tulipana aukeratu ditut. Elefanteari buruzko informazio asko dago eta asko gustatzen zaidan animalia da. Tulipana ere berezia da, eta oso polita. Kolore pila batekoak daude. Poemarako marigorringoa eta arrezifera aukeratu ditut. Gehien gustatu zaidana naturan sakontzea izan da, ez nekien gauza asko ikasi ditut.



**Kepa Del Moral**  
11 urte

Kangurua eta kaktusari buruzko lan monografikoa egin dut. Kangurua asko gustatzen zait, animalia bitxia da, 12 metrora arteko saltoak egin ditzake! Eta kaktusa landare berezia da, ur gabe bizi daiteke pila bat denbora, barruan gordetzen duelako ura. Poemarako behia eta krabeliña aukeratu ditut. Marrazteko teknikak ikastea da gehien gustatu zaidana eta astunena lan monografikorako informazioa bilatzea.





### Gurdi handia 6 urtetik aurrera

Munduan asko bezala, behin batean baziren baserri batean bi idi, eta haietako bat zen zuria, eta bestea gorria. Idietako batek, zuriak, egin zuen: “Muu!”. Eta bestea, gorriak: “Marruu!”. Eta gau batez, etorri ziren bi lapur, eta eraman zituzten bi idiak



### Puka eta Mateoren oilarra 8 urtetik aurrera

Puka artzain-txakurraren lagunek gaurkoan ez daukate plan onik. Marina Mostaza, Nora Ketchup, Kepa Piper, Blas Amuarrain eta Lizar Txanpu erabat aspertuta daude. Ondo pasatzen ari den bakarra Puka da: Kepa Piperrek erreka putzu handira botatzen dion makila harrapatuz jostatzen ari da. Halako batean, ordea, Pukak Erdiko Kaletik Mateo Legami herriko okina ikusi du aiene batean, guztiz aztoratuta. Ronaldo oilarrak ihes egin dio eta haren kukurrukurik gabe, ezin du herriko bizilagunentzat ogia egiteko garaiz esnatu. Ronaldok erabaki du mundua ikusi nahi duela eta ihes egin du. Herriko biztanle guztien gosari goxoak daude arriskuan.



### Urrezko arrautzagatik lehian 10 urtetik aurrera

Japoniako zokorik zokoenean, Hokkaido irlako goi-goiko mendixketan, baziren izugarrizko bi menditzar. Dragoiaren Letaginaren goi-goian ninjak bizi ziren. Tentel hutsak ziren ninjak. Ez zegoen haiek baino irrizale eta txantxazaleagorik. Tigrearen Atzaparraren gailurrean samuraiak bizi ziren. Sekula ez zuten irribarrerik egiten, are gutxiago txisterik kontatzen. Ninjak eta Samuraiak bitzta osoa zeramaten elkarren artean lehia latzean, norgehiagoka.

## jolastokixan jolasian

### “Ping-pong jolasa” (Arrateko Andra Mari)

Ping-pong pilota bat behar da eta lurrean bide bat marraztu.

2- 10-15 pertsonak jokatu dezakete.

3- Jolasten hasteko, ping-pong pilota lurrean jartzen da.

4- Jokalariak bi aldeetan egon behar dira eta putz eginez ping-pong pilota beste muturreraino eramaten saiatu behar dira.

5- Ping-pong pilota bidetik ateratzen bada, jokalariek pilota ikutu edo marra zapaltzen badute, berriz hasieratik hasiko da jolasa.



#### BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/arrateko-andra-mari-jolasa.html>



sukal-kitto


## Arrautza bete krematsuak

### Osagaiak

- 12 arrautza handi
- taza 1/3 esne ebaporatu
- 3 mahonesa koilarakada erdi
- 2 mustarda koilarakada
- Gatza
- Paprika

### Nola egin?

- 1- Arrautzak egosi eta erditik moztu (luzeeran).
- 2- Gorringoak kendu eta katilu batean jarri, sardeskarekin ehotu eta, poliki-poliki, esne ebaporatua, mahonesa eta mustarda gehitu. Nahasketa krematsua lortu arte irabiatu eta gazta gehitu.
- 3- Nahasketa zuringoaren barruan jarri koilara batekin eta paprikarekin hautsezatu.



etxeko artista

## Arrautza urpekariak

Arrautza bakoitza erdira arte margotu, bainujantzi dibertigarri bat izango balitz bezala. Goma bat erabili lastotxoa ondo eusteko. Tapoi eta orri zuri banarekin urpekariaren betaurrekoak egin eta arrautzan itsatsi. Kartoi beltzarekin hegatsak egin eta alde bietan itsasgarria duen zeloarekin arrautzan itsatsi. Orain, urpera!







*ipuin*

## *Estutxeek sentimenduak dituzte*

Kaixo ni Dobby-ren estutxea naiz, bera izan nintzen denbora batean. Gogoratzen dut Dobby dendara sartu zenean eta ikusi ninduenean "Ze estutxe polita!" esan zion dendariari eta niri begiratzera etorri zen. Ni berde liluragarri koloreko estutxe bat nintzen, kremailera txuri batekin eta esaldi ingeles batekin aurrealdean.

Egun hartan Dobby-ki bere etxera eraman ninduen eta gauza askoz bete ninduen; margoak, arhatzak, zorrozkiak... Oso pozik geratu nintzen.

Hurrengo egunean Dobby-ki bere eskolara eraman ninduen eta bertan beste estutxe batzuk ezagutu nituen.

Urte bat egon nintzen Dobby-rekin eskolara joaten baina gero eta zikinago nengoen, uda bukatu eta gero eskolara bueltatu behar genuenean Dobby-ki niri begiratu eta pentsatu zuen: "Estutxe honekin denak nitaz barre egingo dute, hobe da beste bat erostea". Eta horrela izan zen, estutxe berri bat erosi eta ni zaharrontzian botata gelditu nintzen.

Egun batzuk egon nintzen han pentsatzen eta oso-oso triste, ordu batzuk gehiago pasatu ondoren ume bat bere amarekin zaborrontzi albotik pasatu zen eta ni ikustean, hartu eta bere amari erakutsi ninduen. Bere etxera eraman, garbitu eta berarekin oso pozik egon naiz 10 urte hauetan.





zu margolari